

5. EUROPAKO ANTZERKI KLASIKOA. INGALATERRAKO ANTZERKI ISABELDARRA

EUROPAKO ANTZERKIAREN EGOERA ERDI AROAN

Mendebaldeko inperio erromatarra erori ostean, Erdi Aroan, Antzerki Klasikoa erabat ahaztu zen. Antzerkia, haatik, ez zen guztiz desagertu, ikuskizun bezala (bufoiak, akrobatak eta juglareak), nola edo hala, gorderik iraun zuen, beti ere, jai erlijiosuei lotuta: Inauteriak eta Heriotz Dantza.

XII.mendean antzerkia eliza barruetan berpizten da; kristautasunarekin lotutako jaiak ospatzen ziren: Gabon Gaba eta Aste Santua. Ondoren Elizen arkupeetara irtengo da eta azkenik plazetara.

Adibidez, Frantzian *Mirakuluak* antzezten dira eta Espainian *Autos Sacramentales* izenekoak. Euskal Herrian ere baditugu horrelako adibideak, beranduagokoak diren arren gure eskuetara iritsi direnak, *Gabon Gauerako Ikuskizuna*, Barrutiarena XVII. mendekoa.

XIV mendetik aurrera Italiako humanisten eskutik, antzerki klasikoak bizkortze bat izango du. Latinez lehenik, eta erromantzean ondoren, irakurtzeko idatzita zegoen (Komedia Humanistikoa). XV. mendean **Gorteko antzerkia** jaioko da, inspirazio klasikoa eta gai profanoak izango dituen ikuskizuna.

EUROPAKO ANTZERKIA XVI ETA XVII MENDEETAN

Europako herrialdeetan garapen paraleloa izango du antzerkiak: Erdi Aroko antzezkizunetatik, erlijiozkoak zein profanoak izan, alde batetik, herri antzerkira igaroko gara (inprobisazioak, fartsak, xaribariak) eta bestetik, antzerki kultura.

+ Ingalaterran, antzerki herrikoia goren mailara iritsiko da Shakespearearekin eta antzerki isabeldarrearekin. Ingalaterrako Isabel I.aren (1558-1603) eta Jacobo I.aren erregealdiak (1603-1625) nahiko egonkorak izan ziren eta tarte horretan kokatzen dugu ingeles literaturaren urrezko garaia, mende Erdiko iraultzaren urte istilutsuen aurretik.

+ Espainian ere, antzerki herrikoia ospetsua izango da. Lope de Vegak ehundaka lan idatzi zituen; ospetsua da *El Alcalde de Zalamea*. Lan hauek "Corrales de Comedia" direlakoetan antzezten ziren.

+ Frantzian, antzerkia ez da herrikoia izango, gorteko antzerkia, arau klasikoari jarraituz eratuko da 1630etik aurrera.

+ Italian, halako komedia kulta bat nagusituko da, **embroglio** edo **enredo komedia** deituko dira, gai asko hartuko dira hauetatik antzerki ingeles edota espainiarerako. Bestalde Commedia dell'Artekin eragin handia izan zuen Molierrengan.



(Le Salon de Madame Geoffrin, 1755)

Frantzia "Argien Mendea".

XVII. mendean, literaturak gorakada nabarmena izan zuen Frantzian, batik bat Luis XIV.aren (1661- 1715), Eguzki Erregearen, erregealdi absolutistaren garaian. Gorakada hau bereziki teatroan nabaritu zen. Hasieran barrokismoa gailendu zen arren, azkenean

klasizismo goiztiarra zabaldu zen. Beste herrialde europar batzuetako literatura barrokoa ez zen horren garrantzitsua izan, autore bikainak egon ziren arren.

XVII. mendeko Frantziako poesian ez zen idazlerik nabarmendu. Mendearen lehen erdialdean joera barrokoak izan ziren nagusi:

Preziosismoa: espresio jantzi eta fina erabiltzen zuen korronte horrek.

Gaiak atseginak izan ohi ziren, eta gehienetan nobleen etxeetan egiten zituzten literatur bilera finetan lantzen zituzten (saloiak).

Burlazko poesia eta satirikoa: Paul Scarron (1610-1660) nabarmendu zen korronte horretan.

Descartesez azaldu zuen arrazionalismo filosofikoak gero eta entzute handiagoa lortu zuen eta estilo arruntagoa eta soilagoa eragin zuen. Imajinazio neurritsua zuen eta espresio argia. **François de Malherbe** (1555-1628) nabarmendu zen korronte horretan. Garai hartan sortu zen **Akademia Frantsesa** (1634) eta klasikoen imitazioa eta artearen arauak errespetatu beharra sustatu zituen.

Hala, **klasizismoa** sortu zen. Mende hartako bigarren erdialdean nagusi izan zen mugimendu hau eta ilustrazioarekin elkartu zen. Ondorengo olerkariak izan ziren garai hartako ezagunenak: **Jean de la Fontaine** (1621-1695) alegilaria; eta **Nicolas Boileau** (1636- 1711), neurtitzez idatzi zuen eta eragin handia izan zuen *Arte Poetikoa* (1674) lanaren egilea.

Bestalde, narratibari dagokionez, **Cyrano de Bergerace** idatzi zuen (1619-55) *Ilargirako bidaia* izan zen lanik garrantzitsuena. Lan harrigarria da, satira eta zientzi fikzioaren artean sailka daitekeena. Horrez gain, **Madame La Fayette**ren *Clèves-eko Printzesa* (1678) azpimarratu behar da. Madame La Fayettek eleberri psikologiko eta errealistak idatzi zituen. Prosan idatzitako beste lan aipagarri bat *Máximas* izan zen, **La Rochefoucauld** (1613-1680) dukeak idatzi zituen hausnarketa laburren bilduma.

Antzerkile nagusienak

Luis XIV.aren eta nobleziaren babesari esker antzerkigintza bihurtu zen generorik garrantzitsuena. **Pierre Corneille** (1606-1684) izan zen tragedia frantziarraren sortzailea. Bere lehen lana *Le Cid* (1636) izan zen. Arauak ez zituela betetzen eta, oso kritikatu izan zen.

Bere hurrengo lanek estilo klasizista hartu zuten: *Horace* (1640) eta *Cinna* (1640). Bi lanak erromatar giroa eta gai politikoa lantzen dute; *Polyeucte* (1642) lanean erlijio gaiak agertu zituen. Antzerkigile bikaina izan zen, bai komedian ere, eta horren erakusgarri da *Gezurria* (1643) lana. **Jean Racine**ri esker (1639-99) tragedia klasikoak arrakasta lortu zuen. Formari dagokionez, edertasun izugarria zuten bere lanek, argumentu korapilatsurik ez zuten arren. Gizakien arteko pasioak adieraztean indar handia zuen Racinek. Lanik gehienek gai klasikoak landu zituzten; hala nola: *Andromaque*, *Britannicus* biak tragediak. Biblia gaiet buruz ere idatzi zuen eta horren erakusgarri da *Esther* hau ere tragedia lana. Bere maisu lana **Phedre et Hippolyte** (1677) izan zen. Bertan pasioari eta erruari buruzko azterketa hunkigarria egin zuen. Euripidesengan inspiratuta, protagonistak bere semeordeagatik, Hippolyte ederragatik, sentitzen duen pasio ezinezkoa kontatzen du.

Jean Baptiste Poquelin (1622-1673), urte askoan, Molière ezizenez ezagunagoa den egile hau, alde batetik bestera ibili zen antzezle lanetan, eta bidaia haiei esker bizitzari buruzko ezagutza handia lortu zuen. Bere komedietan agerian dago ezagutza hori eta gizakien alderdi ahulenei burula egin zien: pedantekeriari *Les précieuses ridicules* (1659) lanean, barregarria *L'Avare* (1668) lanean, eta aberats berrien ergelkeriari *Le bourgeois gentilhomme* (1670) lanean, besteak beste.

1664an hiru maisu lan bikain argitaratu zituen, seriotasun handiagokoak: *Tartuffe ou L'Imposteur*, erlijioaren hipokresiari gogor eraso egiten zion lana; *Dom Juan ou Le Festin de pierre*, pentsalari askearen mito ezagunaren gaineko sorkuntza; eta *Le misanthrope ou L'Atrabilaire amoureux* (1666), ezkortasun nabaria ageri zuena. Ospe handikoa dugu, azkenik, *Le Malade imaginaire* (1673).

Antzerki isabeldarra

XVI. mende bukaeran prozesu luze batek itxura modernoagoa eman zion Ingalaterrako antzerkiari, hain zuzen ere, Espainian barrokoaren antzerki garaikideak izandakoaren modukoa. Horren aurretik hiru antzerki mota zeuden soilik:

- Erlijio antzerkia.

- Klasikoen moduko antzerki landua.
- Konpainia ibiltariak antzezten zituzten antzezlan komikoak.

Obra horiek guztiak unibertsitateetan eta jauregietan antzezten ziren. Teatro publikoak beti jo izan ziren kategoria eskaseko olgetatzat, eta ostatuetako atarrietan antolatzen ziren, bitarteko urriekin.

Egiaz teatro izena merezi zuen lehena Burbagek eraiki zuen 1576an, Londres hiriarren jurisdikziotik kanpo, hirian puritanoek antzerkia debekaturik baitzeukaten. Urte gutxiko epean beste zortzi gehiago eraiki ziren; besteak beste, *Globo*, Shakespeare bera jabekide izan zuen eta beraren obra gehienak antzeztu zituen teatro ospetsua.

Horrela, eta zenbait nobleren babesari esker, hirian lehenengo antzerki lekuak sortu ziren eta antzerkia maila sozial guztien gustoko masa ikuskizuna bihurtu zen.

Lokal berri hauetan antzezlanak arratsaldeko lehen orduetan egiten ziren, eguzkiaren argiari probetxua ateratzearren. Eszenatokiak bi maila zituen eta eszenografia nahiko txiroa zen: gehiena eszenatokian hitz egindakoan eta ikusleko zalapartariaren irudimenean oinarritzen zen. Geroago gortearren antzerkia ere sortu zen, lokal itxietan antzezten zena.

Isabeldar antzerkiak, 1580-1625 bitartean garatuak, antzerkiaren alorrean herri xehearen gustuko eszena nagusitza ekarri zuen. Autore garrantzitsuenak **Kyd**, **Marlowe**, **Johnson** eta, batez ere, **Shakespeare** izan ziren; honek Londresko antzerki-bizitzan bere antzerki-formula nagusitu zuen. Shakespeareren sistemak arau klasiko guztiak gainditu zituen (tragikoa eta komikoa nahasiz, estiloaren uniformetasunik ezaz jokatzuz, prosaren eta bertsoaren nahasketa erabiliz...); baina, guztiaren gainetik, Shakespeare eredu unibertsalen (Hamlet, Otelo, Romeo eta Julieta, Macbeth) sortzailea izan zen, giza bihotzaz zuen ezagutza sakonarengatik.

Antzerkigile nagusienak

Ikuskizun mota berri honek antzerki forma berriak eskatzen zituen, eta horren adibide dira **William Shakespeare** gizadiaren jenio handienetakoaren obrak. Haren aurreko autoreen artean hauek goraipa ditzakegu:


- **Thomas Kyd** (1558-1594) idazleak *Spainiar tragedia* (1587) idatzi zuen, batzuen ustetan Hamleten aurrekaria izan zena.
- **Christopher Marlowe**: hauek dira bere obra nagusiak: *Fausto* (1588), non deabruari arima saltzen dion pertsonaia ospetsua lehenengo aldiz agertzen den; *Maltako judua* (1589) eta *Eduardo II* (1592), aberriari buruzko tragedia historikoa.
- **Ben Jonson** (1572-1637), Shakespeareren garaikideak, idazle landua izateagatik ospe handiagoa izan zuen. Komediak idatzi zituen batik bat, adibidez *Volpone* (1606) ospetsua.

William Shakespeare: antzerki modernoaren sorrera

XVI. eta XVII. mendeen artean antzerkiak bere ezaugarri modernoak eskuratzen ditu Lope de Vega, Calderón de la Barca, Molière eta Shakespeareren eskutik. Hau posible izan zen Berpizkundean (Errenazimentuan) sortu zen bizitzarekiko balioespen berriari esker.

Antzinako literaturaren helburua mundu ideal bat irudikatzea zen; horregatik greziar antzerkian jainkoek pertsonaiezako hautatutako patua gatazka sorbide zen. Literatura modernoak, berriz, eguneroko bizitza irudikatzea du helburu, horrela pertsonaien gatazka pertsonalak beraien sentimendu, bizio eta bertuteekin zerikusia izango dute, baita bakoitzaren historia eta ingurunearekin ere.

Ingeles Barrokoaren antzerkigilerik garrantzitsuena izateaz gain, Shakespeare literatura unibertsalaren jenio handienetako bat ere bada. Bere idatzien bitartez antzerkiak modernitate eskuratzen du, aldi berean Erdi Aroan greziar antzerkiak galdua zuen sakontasuna berreskuratuz. Gainera, bere obrak ahaztu ezineko pertsonaia sorta utzi digu.



The Globe theatre (Globoa Antzokia) Londresen 1599.urtean egindako eraikinaren grabatua.

William Shakespeare idazlearen 37 antzerki lanak horren adibide argia dira, bertan bertsoa eta prosa tartekatzen direlarik. Bizitzan bezala, lan hauetan elkarren eskutik doaz fantasia eta errealitatea, tragedia eta komikotasuna, garrantzitsua eta axolarik gabea.

Bere lana hiru arlotan sailkatzen da: Drama historikoak, komediak eta tragedia handiak.

1. Drama historikoak

Gai nagusia boterea eskuratzeko borroka da. Ohiko doinu legendario eta mitikotik urrun, pertsonaia historikoak gizartuak agertzen dira. Girotzeari begira, bi mota bereiz daitezke:

- **Ingalaterrako Historia:** Ingalaterrako historiaren ia hiru menderi buruzko hamar pieza dira, guda zibilek ekarritako gatazkei buruzkoak batik bat. Izenburu hauek nagusitzen dira:
 - *Richard III:* Gloucester konkordun protagonista maltzuraren bidez, gaizkiari buruz hausnartzen du idazleak.
 - *Henry IV* (bi zatitan banaturik): Falstaff bigarren mailako pertsonaia bizizale, tripontzi eta koldarra hain ospetsu egin zen, ezen Shakespearek *Windsorko emazte alaiak* komedian berriz sartu behar izan zuen.
- **Antzinako historia:** girotze grekolatinoa zuten. Hauek dira:
 - *Julio Zesar.* Bruto pertsonaian oinarriturik dago, honek, Erroma askatzeko asmoz, Cesar hiltzen duelarik. Azkenik porrot egiten du, gainontzeko azpikarien handinahiaren biktima bihurtzean.
 - *Antonio eta Kleopatra.* Erromatar jeneral bat eta erregina egipziar baten arteko maitasunak heriotzara bideratzen ditu, garaiko interes politikoan aurkako maitasuna baitzen.

2. Komediak: errealitatea eta fantasia

Shakespearearen **komedietan** azpimarratzekoak dira **nahaspilaren** teknika ezin hobe eta **sentimenduen hausnarketa**. Obra ugari Gortean girotutako italiar itxurakoak dira, adibidez: *Much Ado About Nothing* (*Ezer ez eta festa*), *The Taming of the Shrew* (*Piztiaren heziketa*). Hona multzo horren bi obra garrantzitsuenak:

- *A Midsummer Night's Dream (Udako gau bateko ametsa)*: obra alai eta fantastiko honek San Juan gauean gertatutako maitasunezko nahaspilak kontatzen ditu. Hiru maila ezberdinetan jazotzen dira: txiroen artekoa, aristokraten artekoa eta basoko izaki magikoen artekoa. Idazlearen obrarik optimistena dugu.
- *The Merchant of Venice (Veneziako Merkataria)*: amaiera zoriontsua izan arren, funts garratzezko obra da, protagonistaren melankolia eta Shylock juduak antisemitismoaren aurkako bakarriketa ospetsuan erakutsitako gorrotoa direla medio.

3. Tragedia handiak

Gehienak lan helduak izanik, Shakespeareren antzerki maila gorenaren adierazle dira. Gizakiaren pasioaren sinboloak ordezkatzeko dituzten protagonisten bitartez, idazleak gizakiaren arima konplexuaren eta bizitzaren oztupo nagusien deskribapena egiten du.

- *Romeo eta Julieta*: bi senideren arteko gorrotoa eta zorigaitza batu egiten dira protagonista gazteen arteko harremana oztopatuz, hauek maitale sutsuaren adibide direlarik.
- *Hamlet*: Danimarkako printzeari eraildako aitaren mamua agertzen zaio, mendeku eske. Bakarriketa ospetsuetan islatutako zalantzak eta ezbaiak jasanezinak dira protagonista gaztearentzat, Hamleten ama bera ere errudunetako bat delako. Azkenik, eta bere biziarekin ordainduz, gazteak mendeku odoltsua burutzea lortzen du.
- *Otelo*: Yago maltzurak Oteloren jelsia pizten du, eta ondorioz honek Desdemona emazte errugabe maitea bere eskuez itotzen du.
- *Macbeth*: emazteak eragindako botere nahiak Macbeth noble eskoziarra krimena burutzera bideratzen du. Amaiera tragikoaren aurretik, bikoteak oinaze latzak jasango dituzte koroa eskuratu izanagatik.
- *Lear erregea*: Protagonista zaharrak, alaben maitasuna neurtu nahian, benetan maite duen gazteena erbesteratzen du, beste bien hipokresiak bultzatuta. Azkenik, tronutik kentzen dute eta, bazterturik, erdi erotuta amaitzen du.



Aldiberekotasun bitxia

Literatura unibertsalaren jenioen artean, Cervantes eleberri modernoaren sortzailea eta Shakespeare, antzerkiaren berritzaile handia ditugu; bi-biak 1616ko Apirilaren 16an hil ziren (hala ere ez zen egun berean izan, Ingalaterrak eta Espainiak egutegi ezberdinak baitzituzten). Egun horretan Liburuaren Eguna ospatzen da mundu osoan.

Hamlet, Danimarkako printzea

Shakespeareren obra unibertsalena da, gehien antzeztu dena. Idazleari ospe handiena eman diona, kritikoren arabera biribilena ez izan arren. Protagonistaren irudia (Hamlet printzearena) hainbestearaino hazten da, ezen beste pertsonaiak (Ofelia, Horazio, Klaudio, Laertes...) ilundurik geratzen baitira. Hamletek betetzen du obra osoa; patuaren eta gainerako gizateriaren arteko zubi bakarti baten antzera gelditzen da.

Zalantza eta duda-muda ditu bere ezaugarri nagusiak. Ideia-gizona da, ez egintzakoa. Bere pentsamenduaren sakontasuna agerikoa da noiznahi eta nonahi. Hamlet ikasia eta errefinatua da, lotsatu egiten da jauregiko bakanalez eta amaren moralik ezaz. Etengabe bere baitan murgildua, bere burua eta gainerakoak aztertzen ditu, munduari eta gizakiei eragiten dieten arrazoiak aurkitu nahian. Horrela, Hamletek bere bakarriketa ospetsuen bitartez adierazten ditu bere sentimenduak eta ideia barnekoenak. Bizitzarekiko duda-mudak tormentaturik dagoen arimaren pentsamendua pertsonifikatzen du. Malenkonia sakonean amiltzen da, giza existentzia alferreko gauza dela uste izateraino.



*To be or not to be: that is the question:
Whether 'tis nobler in the mind to suffer
The slings and arrows of outrageous fortune
Or to take arms against a sea of troubles,
And by opposing end them...*

« Izan ala ez izan, hor dago kokka.
Zer da nobleago, sufritu indar gabe
patuaren gezi mingarriak,
edo arazo-itsasora armaturik abiatu,
haren aurka saiatuz... »

To be or not to be (Izan edo ez izan)

“Izan ala ez izan”: hauxe izango da, ziurrenik, Literatura Unibertsalean ondoen ezagutzen den dilema edo ezbaia. Egiazki, norbaiti Shakespeareri buruz errezitatzeko moduko zerbait dakien galdetuz gero, hauxe izango da burura datorkion lehen esaldia... edo bakarra. Esaldi hau, jakina, *Hamlet* obratik hartua da, 1603 urtean idatzia (Shakespeare-ren lanaren benetako izenburua hauxe zen arren: *The tragedie of Hamlet, prince of Denmark*).

Azter dezagun zati horretan zer darabilen Hamletek buruan. Argi dago **zalantza** dela giltza, gakoa, bizitza eta heriotzari buruzko zalantza sakona. Zalantza honetan Hamlet bizitzaren penaz edo sufrimenduaz ari da, berak alboraezina ikusten duena, eta bere burua hiltzeak ematen dion beldurraz hausnar dago. (Nahigabeen itsasoa, fortuna gaitzaren harri eta gezikadak, bihotz mina, haragiari dagozkion mila ezbeharrak...).

Hamleten dilema hain da handia ezen, nahiz eta bizitzaren nahigabeen eta laborrien zerranda egin, ez dagoen guztiz seguru heriotzak ekar liezaiokeen onuraz (Heriotzaren ondorengo zerbaiten ikarak...).

Berak ez daki, jakin, heriotzak zer dakarren, heriotzak zer duen barnean bildurik, are gutxiago ona ala txarra den. Hiltzea agian lo egitea izan liteke baina (ausaz -agian- amets egitea), espekulatzen ari da zalantzan dauka egitate hori amets egitea ote den. Baliteke hiltzea bizitza bera baino okerragoa izatea. Heriotzetik (ikertu gabeko lurraldetik, *undiscovered country*) bidaiaririk ez da itzultzen. Hori dioenean, Hamletek badaki bizidun bakoitzak bere kabuz jakingo duela heriotza zer den dagokion unean, bai eta inor ez dela bertatik itzuliko heriotza nolakoa den beste inori esateko. Burua hiltzea norabide bakarreko bidaia dela diosku. Erratuz gero ez dago atzera bueltarik. Akabo!

Bakarrizketa osoan nabari da kristauen nor bere burua hiltzeari buruzko debekuaren ikutua, zuzenki aipatzen ez den arren. Halaxe ulertu behar da “heriotzaren ondorengo zerbaiten ikarak gogoaz aztoratzen digula” dioenean, Tudorren sasoiko entzulegoak ederki ulertuko zukeen infernuko sugarrez ari dela.



Kristauen ikuspegitik ulertu behar da haragiari dagozkion mila ezbeharrak aipatzen dituenen. Mundua eta haragia sufrimendu iturri dira, bizitza bera sufrimendu iturri besterik ez da, baina... zein da konponbidea? Izan ala ez izan?

Bakarrizketa honen funtsa, beraz, hauxe da: bizitza agian okerra da, baina heriotza okerragoa izan liteke; hau da, nork bere burua hiltzea txarretik okerragora joatea izan liteke eta bertatik inoiz ez itzultzeko gainera.

**ANTZERKI ISABELDARRA Galderak:**

1. Zer da antzerki isabeldarra? Zer berritasun ditu?
2. Nortuk dira antzerki horretako idazle nagusiak?
3. Zein ekarpen egin zion Shakespearek antzerkiari?
4. Jaso eskema moduan Shakespeareren obra nagusiak.
5. Hamlet: nolakoa da? Zeintzuk dira kezka nagusiak?
6. Eman ezazu labur *Hamlet* tragediaren argumentua
7. Hona *Hamlet* tragediako pertsonaia nagusiak: Hamlet, Klaudio, Gertrude, Polonio, Ofelia, Laertes, Horazio, Mamua. Esan nor den bakoitza

Hamlet, VI (zatia)**HAMLET (...)**

Mintza nakion sujetu honi. —Norena da hilobi hori, to?

LEHEN ARLOTEA

Enea, jauna.

(*kantari*) ostatu bat buztinez zula: nork ez du merezi?

HAMLET

Hirea behar dik noski, barruan hago eta.

LEHEN ARLOTEA

Berori kanpoan da, jauna, eta, beraz, ez da berorrena.

Niri dagokidanez, egia esateko ez nago bertan, baina hala ere neure dut.

HAMLET

Gezurretan ari haiz, barrutik esanez hirea dela hobia.

Hilarentzat duk, ez biziarentzat; beraz, gezurretan haut hor harrapatu.

LEHEN ARLOTEA

Bizia, hala ere, jauna, gezurra; badoake berriz nigandik berorregana.

HAMLET

Zein gizonentzat zulatzen ari haiz hilobia?

LEHEN ARLOTEA

Ezein gizonentzat ez, jauna.

HAMLET

Zein emakumerentzat, orduan?

LEHEN ARLOTEA

Ezta ezein emakumerentzat ere.

HAMLET

Nor da hor ehorzteko?

LEHEN ARLOTEA

Emakume izaniko bat, jauna; baina, atsedean eduki beza haren arimak, hila da.

HAMLET

Harrapa ezak kirtena!

Tentuz-tentuz beharko diagu hitz egin; hondatuko gaitik, bestela, nahasbideak.

Jainkoarren, Horazio, joan deneko hiru urte honetan ohartua nauk: hain xorrotx bilakatu duk gure gizaldi hau, ezen baserritar oiesa ere hain doakion

gorte-gizonari oinatz-oinatzean, non orpoko azkordina ere igurzten baitio.

—Noiztik ari haiz hilobigintzan?

LEHEN ARLOTEA

Urteko egun guztien artetik, Hamlet gure errege ohiak Fortinbras garaitu zuen egun hartantxe hasi nintzen honetan.

HAMLET

Zenbat denbora du?

LEHEN ARLOTEA

Ez al daki berorrek? Tontoenak ere badaki-eta hori.

Egun berean baitzen jaio, hain zuzen, Hamlet gaztea; zera, burutik egin eta Ingalaterrara bidali zutena.

HAMLET

Bai noski. Eta zergatik zuten, bada, Ingalaterrara bidali?

LEHEN ARLOTEA

Bada, burutik egina zegoelako. Han delakoan bere senera etorriko. Ez bator, hala ere, ez dio askorik axola han.

HAMLET

Zergatik?

LEHEN ARLOTEA

Han ez zaio antzemango. Hura bezain ero dira han guztiak.

HAMLET

Nola erotu zen?

LEHEN ARLOTEA

Gutziz modu bitxian, omen.

HAMLET

Nolako bitxi?

LEHEN ARLOTEA

Alajaina, zentzua galdurik.

HAMLET

Nondik nora, baina?

LEHEN ARLOTEA

Bada, hemen Danimarkan. Hogeita hamar urte daramat nik hemen, mutikotatik, lurperatzaile-lanean.

HAMLET

Zenbat denbora egin dezake gizon batek lurpean usteldu baino lehen?

LEHEN ARLOTEA

Tira, hil aurretik usteldurik egon ezean —etortzen baitzaigu gaur egun

gorpu zornetsu asko, ehortzi orduko zertuta dagoenik— zortzi-bederatzi urte iraun dezake hortxe-hortxe. Larrugin batek bederatzi urte bai.

HAMLET

Zergatik, bada, hark gehiago bestek baino?

LEHEN ARLOTEA

Bada, hara, jauna, hain dauka zurratu eta ondua larruazala bere lanbidez, urari barneratzen uzteke eusten dio luzaroan; eta urak badaki ondo barren izorratzen hilotz putasemea. Hona burezur bat. Hogeita hiru urte daramatza kaskar honek lurpean.

HAMLET

Norena zen?

LEHEN ARLOTEA

Burutik egindako putaseme batena. Norena zela egingo luke berorrek?

HAMLET

Ez zakiat, bada.

LEHEN ARLOTEA

Izurriak daramala zoro kirtena halakoa! Burutik behera ez zidan ba behin bota bonbil bat Rineko ardo! Kaskezur

hauxe, jauna, Yorick-en kaskezurra zen, erregeren bufoiarena.

HAMLET

Hauxe?

LEHEN ARLOTEA

Horixe, bai.

HAMLET

Uztak ikusten. Ene!, gaixo Yorick.

Ezagutu nian gizona, Horazio, zirtolari bikaina, buru argietan argi. Lepo gainean eraman izan naik mila bider. Eta orain nolako higuin zaidan irudimenean! Goragalea ematen zidak. Honixe zitxekan nik dakita zenbat bider musu eman nion musua.

Non daude orain zure izkirimiriak, zure brinkoak, zure kankak, zure ateraldi jostagarri, mahaia algara-orroaka jartzeko gai zirenak?

Inor ez gaurgero zeure imintzioei burla egiteko?

Arras burujausia? Zoaz, zoaz, andre gorenarengana eta esaiozu, hazbete azalmargo emanik ere, aurpegiera honetara etorriko dela azkenean.

Barre eragiozu horrekin.

HAMLET, W. Shakespeare (lanketarako gidoia)

I. EKITALDIA

Hamlet obran hasiera-hasieratik ageri zaigu mamua edo espektroa; dena den, mamuaz hitz egitean, harrigarria da elementu fantastiko eta naturaz gaindikoak agertzea eta horiekiko gustua adieraztea, baita, Hamlet printzeak eta ingurukoek zalantzarik gabe halakoetan sinestea ere; ematen du zerbait normala zela Ingalaterran (protestantea); ez, ordea, Frantzia edota Espainian. Frantzia oso zorrotzak baitziren arauekin (Klasizismoa, Frantziako Akademia) eta Espainian kristautasunaren (Inkiszioa) eragina handiegia baitzen.

- Nor da espektroa? Nola doa jantzita? Zein pertsoniak ikusten dituzte espektroaren agerpenak?
- Nortzuk doaz bidaiatzera eta noren baimenarekin? Nora doaz? Zer eskatzen dio Laertesek erregeari? Nolako aholkuak ematen dizkio Oraziok semeari?
- Protagonistaren lehen bakarrizketa analizatu eta aipa itzazu min sakona eta intentsitatea adierazten dituzten esapideak. Zer pentsatzen du Hamletek ama eta osabaren arteko ezkontzaz?
- Azter ezazu mamuaren eta Hamleten arteko bilkura. Mendekua da ekintzaren hasiera? Nork hil zuen erregea? Nola? Zein da hilketaren arrazoia? Zergatik dago mamua noraezean ibiltzera behartuta? Noiz arte? Aipa ezazu noiz ematen duen aditzera protagonistak bere sasizoramena.
- Zelako aginduak ematen dizkio Oraziok Ofelia alabari?

II. EKITALDIA

Hamlet zoroarena egiten hasten da. Protagonista krisi sakonean sartuta dago bere inguruko eta antzinako (betiko) ziurtasunak jausten ari baitzaizkio; gizakiarengan zeukan fedea, bizitzeko gogok eta amodioak ere galtzen dute zentzua berarentzat. Sentimendu hauek bere eroramen antzeztuaren bidez adieraziko ditu. Hasiera batean, itxurazko erotasuna bere mendeku planak errazteko errekurtsua izango da baina berehala ekintza dramatikoaren beharrezko elementua bihurtuko da eta hau erabiliz ezagutu ahal izango dugu protagonistaren pentsamendu desengainatu eta garratza eta aldi berean, egoera honek hainbat eginkizun berezi bideratuko ditu. Liluragarriak dira, zentzu honetan, testuan zehar agertzen diren ergelkeria eta pentsamendu sakonen nahasmen harrigarriak.

- a. Zertan nabaritzen dute lagunek Hamletek konozimendua (zentzua, sena) galdu duela?
- b. Protagonistaren jokaera anitilzatu: uste duzu Hamletek jolastu egiten duela bere solaskideekin elkarrizketetan? Nola?
- c. Zubi-ekitadi honetan zein da Hamleten plana aitaren heriotzari buruzko egia aurkitzeko?

III. EKITALDIA

Atal honetan Hamleten bakarrizketa ospetsuena ezagutuko dugu, "izan edo ez izan...", obran zehar agertzen den pathos (zoria) tragikoaren erakuslea izan daitekeena, protagonistak burutzen dituen ekintza eta hausnarketaren arteko ezbaiak, hain zuzen. Sufrimendu itzela adierazi eta Hamlet izugarri markatzen duen intentsitate handiko hizketaldia da "Zalantzaren bakarrizketa" ere deitu izan dute hainbatek.

- a. Zein da hausnarketa honen gai nagusia? Eta bigarren mailako gaiak?
- b. Bakarrizketak protagonistaren nortasunaren ezaugarriak iradokitzen ditu. Zeintzuk dira? Nola sentitzen da protagonista?
- c. Hamlet eta Ofelia batera daudenean, zer eskatzen dio Hamletek Ofeliari? Nola tratatzen du? Zein da neskaren erantzuna? Nortzuk daude ezkutatuta elkarrizketa entzuten eta zergatik edo zertarako?
- d. Zein da komikoek antzezten duten lanaren izenburua? Zein izenekin aurkezten du Hamletek errege-erreginen aurrean? Zergatik asmatzen du izenburu hori? Nola erreakzionatzen du erregeak antzezenaren aurrean?
- e. Azter ezazu Claudioren bakarrizketa: errudun sentitzen da? Damutzen da egindakoaz? Zergatik ez du Hamletek osaba hiltzen bakarrik eta ustekabean aurkitzen den une honetan?
- f. Nor hiltzen da? Nork hiltzen du? Zein da arrazoia? Zer gertatzen da gorpuarekin?

IV. EKITALDIA

Atal honetako aipagarriena Ofeliaren **benetako** eromena izango da. Hamleten itxurazkoarekin kontrastean. Ofeliak zoramena eta zentzua nahasten ditu bere solasaldietan. Bere hizketaldien gozotasunak eta lirikotasunak *absurduaren poetika* ematen dute zerbait oso berria garai hartarako.

- a. Analizatu Ofeliari obran zehar gertatzen zaiona eta eman ezazu eskema labur baten. Zergatik erotzen da?
- b. Umorea eta ironia nahasturik maiz aurkituko ditugu testuan zehar, izan ere, Hamletek zoroarena egitean *clown* baten antza hartuko du askotan. Eman honen adibide bi.

V. EKITALDIA

Shakespearek, bere dramen elementu komikoak sartzean arau klasikoak gainditzen ditu, tragikotasunaren aringarri, interesgarria eta originala gertatzen dena. Alde komiko honek gai larrienak ispilu deformatzaile eta ironikoaren aurrean jartzen ditu, indarren oreka nabannerna lortuz.

- a. Ehorzleekin duen elkarrizketan zertaz ari dira ehorzlea eta Hamlet?
- b. Dueloa azter ezazu. Nola gertatzen dira heriotzak? Dena gertatzen da planeatu zuten bezala? Nork zabaldu behar du munduan zehar gertatutakoa?
- c. Bukaeran, "hildakoen metaketa" gertatzen da, ez zuen horrela ikusten Shakespearek. Antzerki isabeldarren ikusleak ohituta zeuden ikuskizun gogorrek eta odoltsuak ikusten (ajustiziamendu publikoak). Baina zertan datza tragikotasuna?
- d. Azken momentuan hasieran aipatutako pertsonaia bat agertzen da. Nor da? Zein da bere eginbeharra?.

